



SIRHA 2023

2023ko urtarrilaren 19-23

Informazio gehiago:

Lucia de Artaza

94 470 65 00

agro@camarabilbao.com

Tokia: Eurexpo Lyon, Frantzia

Maiztasuna: Bi urtean behin

Nori zuzenduta: Banaketa kanal desberdinetako profesionalak. Inportatzaileak / esportatzaileak, retail, banaketa handia eta HORE.CA kanaleko espezialistak

Izena emateko epea: 2022ko uztailaren 18a

Azokaren webgunea: www.sirha.com

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak, Euskal Elikadura Industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan, laugarrenez jarraian euskal enpresen baterako parte hartzea antolatu du **SIRHA 2023** azokan. Nazioarteko Ostalaritza, Catering, Sukaldaritza eta Elikadura Azoka Lyonen izango da, **2023ko urtarrilaren 19tik 23ra** bitartean.



AZOKAREN IZAERA

Frantzia, herrialde bizilaguna izanik eta bertako azpiegiturei esker, estrategikoki kokatuta dago gure esportazioetarako, eta, horrez gain, Europako gainerako herrialdeetarako atea ere bada. 60 milioi bizilagun inguruko merkatua daukanez, Espainiako nekazaritzako elikagai produktuen esportazioetarako lehen merkatua da, eta gourmet-merkatu nagusietako bat da.

Frantzian, kontserbako elikagaien eta elikagai prestatuen kontsumoa bere ekoizpen nazionala baino handiagoa da; hori dela eta, mota horretako produktuen inportazioak etengabe hazten ari dira. Arrain-kontserbek kokapen ona dute. Heltze-fasean egon arren, kontsumo-maila handietan mantentzearen berezitasuna dauka. Plater prestatuen sektorea, kalitatea eta prezioa tarteko, merkatuaren gourmet-nitxoan dago. Gozogintza eta gozo eskaria handia da Frantzian, eta garrantzi berezia ematen diote zenbait produkturen jatorriari, hala nola kakaoarenari edo txokolateenari.

SIRHA azokak nazioarteko garrantzia handiko azoka-plataforma da Elikagai Industriarako; publiko profesionalerako da soilik eta gastronomia eta gourmet-produktuek garrantzi berezia dute.

Ekitaldi hori bi urtean behin egiten da, eta elikagai-sektoreko erakundeen ordezkariak bertaratu eta aktiboki parte hartzen dute, joera eta produktu berriak, merkatuaren aurrerapenak eta hornitzaile berriak ezagutzeko asmoz.

Sirha azokan Euskadiren partaidetza finkatu egin da, gourmet-sektorerako erreferentziazko azoka gisa, eta Frantziako eta herrialde mugakideetako publikoa du gehienbat.

SIRHA+ LYON

Euskadi Basque Country stand-a

Eusko Jaurlaritzak Euskal Elikagai Industriako enpresek parte hartzeko espazio bat izango du SIRHA 2023 azokan. Stand-a Nazioarteko Pabiloian egongo da.

Eusko Jaurlaritzak azoka horretan parte hartzeko, gutxienez 6 enpresak nahi izan beharko dute parte hartu azoka horretan. Halaber, enpresa partaideen gehieneko kopuru bat ezarriko da, eskuragarri dagoen espazioaren arabera. Enpresa interesdun gehiago izanez gero, izena emateko ordena zorrotzari jarraituz egingo da hautaketa.

Erakusketa eremua: 146.000 m²

2019ko erakusleak: 3.770 erakusketari. 2021ean, pandemia-egoeran: 2.116 erakusketari egon ziren.

Bisitariak 2019an: 189.028 bisitari; 2017an baino % 8,22 gehiago. Horietako 30.581 nazioartekoak, eta 25.500 chefetik gora.

* 2021ean, pandemia-egoeran: 149.100 bisitari, horietako %14 nazioartekoak eta 25.000 chef.

Ekitaldiaren barruan ematen diren sariak: Bocuse d'Or, Pastelgintzako Munduko Kopa eta Cateringaren Europako Kopa; beraz, mundu osoko chefak erakartzen ditu azokak, besteak beste.

PARTE HARTZEKO BALDINTZAK

SIRHA+ LYON

Egoitza Euskadin duten eta Ekonomiaren Garapen Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren Elikagaien Industrien Erregistroan inskribatuta dauden enpresa ekoizleak baino ezingo dute parte hartu ekitaldi honetan.

Behin enpresa erakusleak baieztatzen duenean azokara joango dela, izen emate fitxa eta ordainketa-
ren ziurtagiria bidaliz, ordaindutako kopuru hori ez da itzuliko azoka egiten bada eta Eusko Jaurlaritzak bertan parte hartuko duela baieztatzen bada. Azoka ez bada egiten, berriz, HAZIk dagokion zenbatekoa itzuliko du.

Azokaren aurretik

- Enpresak ordezkari bat bidaltzeko konpromisoa hartuko du eta dagokion kuota ordainduko du. **Euskadiren standean egongo dela jakinarazi ondoren, ezin izango da baja eman.** Ezinbesteko kasuetan, eta horietan baino ez, Eusko Jaurlaritzak eskubidea izango du enpresak aurkeztutako arrazoiak aztertu eta, behin-behinean, ordaindutako zenbatekoaren zati bat itzultzeko.
- Enpresek nahitaez agertu beharko dute ekitaldia hasiko den egunaren bezperan, adierazitako orduan, merkantzia jasotzeko eta beren standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi baino lehen, nahikoa aurrerapenarekin.

Azokan zehar

- Erakusten diren produktuek soilik Euskadikoak izan beharko dute. Inola ere ezin izango da ez aipatu, ez aurkeztu, beste autonomia erkidego batzuetako produkturik.
- Bere standean egon azokako egun guztietan eta ordutegi osoan. Standean egon ezean, enpresak bere gain hartuko du azokaren antolakuntzak ezar dezakeen zeinahi zigor, eta hurrengo ekitaldietan Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzeko ondorioak ekar ditzake.
- Azoka amaitzean, enpresak egoki jaso beharko ditu bere produktuak, eta standeko elementuak jaso zituen egoera berean bueltatu beharko ditu.

Azokaren ondoren

- **Ebaluazio galdetegia** bete eta eskatzen zaienean entregatu.

PARTE HARTZEKO EREDUA ETA KOSTUA

SIRHA+ LYON

Parte hartzeko eredua

Parte hartzeko bi aukera eskaintzen dira:

- **Stand INDIBIDUALA**
- **Stand BIKOITZA**

Eusko Jaurlaritzaren Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia-
ren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak
EAEko lehen sektorearen ekoizpena eraldatzen eta
merkaturatzen duten enpresen partaidetza bultzatuko
du.

Sailkapenaren arabera, enpresek dirulaguntza desber-
dinak jasoko dituzte partaidetza kosturako. Enpresa
bakoitzak zein motatakoa den justifikatu beharko du.
Horretarako, lehengaien jatorriari buruzko zinpeko
adierazpena aurkeztu beharko da, sinatuta eta zigilatu-
ta izen-ematea formalizatzean.

Jatorri-deitura, AGB edo kalitate-marka ziurtatu ofizia-
la duten produktuen enpresek ez dute adierazpen
horren taula bete beharko. Soilik zerga-betebeharren
eta Gizarte Segurantzaren ondoretarako baimendu
beharko dituzte adostasunak.

OHARRA:

1. La adjudicación de stand doble o triple quedará condicio-
nada al número total de empresas participantes y al espacio
disponible.
2. Las medidas exactas del stand se detallarán en el
momento de la confirmación por parte de la feria del proto-
colo de seguridad establecido y del espacio disponible.

Parte hartzeko kostua

1 Motako Enpresa

Nagusiki Euskadiko lehengaez hornitzen diren enpresak.
Enpresak produktuaren jatorria zein den egiaztatu
beharko du. Eusko Jaurlaritzaren **dirulaguntza % 70ekoa**
izango da.

- **Stand Indibiduala: 2.041,20 € + % 21eko BEZa**
- **Stand Bikoitza: 4.082,40 + % 21eko BEZa**

2 Motako Enpresa

Euskaditik kanpoko lehengaez hornitzen diren enpresak,
baldin eta tokiko ekoizpen primariozik ez badago. Eusko
Jaurlaritzaren **dirulaguntza % 50ekoa** izango da.

- **Stand Indibiduala: 3.240 € + % 21eko BEZa**
- **Stand Bikoitza: 6.480 € + % 21eko BEZa**

3 Motako Enpresa

Nagusiki Euskadiko lehengaez hornitzen EZ diren
enpresak, tokiko ekoizpen primarioa egon arren. Eusko
Jaurlaritzaren **dirulaguntza % 30ekoa** izango da.

- **Stand Indibiduala: 4.752€ + % 21eko BEZa**
- **Stand Bikoitza: 9.504 € + % 21eko BEZa**

Parte hartzeko kuota **bi ordainketatan** ordainduko da,
faktura bakarra izango den arren:

- Zenbatekoaren % 50 + BEZaren % 21 izena emateko
unean, eta espazioa erreserbatzeko kontzeptupean.
- Gainerako zenbatekoa ekitaldia egin baino 60 egun
lehenago ordaindu behar da.
- Faktura bakarra egingo da, guztizko zenbatekoarekin,
eta espazioaren erreserbaren lehen ordainketa jasot-
zean igorriko da.

Izena emateko epea: 2022ko uztailaren 18a

Plaza-kopurua mugatua denez, izena emateko formularioa bete eta eskatutako dokumentazioa ahalik eta lasterren bidaltzea gomendatzen dugu helbide elektronikoko honetara: agro@camarabilbao.com

Enpresa parte-hartzaileak izen emateak jaso diren hurrenkera berean hautatuko dira.

IZENA EMATEKO FORMULARIOA BETE



Formularioan eskatzen den informaziotik transkribatuko dira zehazki azokaren katalogo ofizialerako eta egingo diren gainerako sustapen-elementuetarako datuak.

IZENA EMATEKO KUOTAREN ORDAINAGIRIA

Kontu zenbakia: Laboral Kutxako **ES49 3035-0179-61-1791069900** HAZI Fundazioaren izenean.

Kontzeptua: **“Enpresaren izena + SIRHA 2023”**

ZINPEKO ADIERAZPENA



Enpresa eskatzaileak lehengaien jatorriari buruzko zinpeko adierazpena aurkeztu beharko du, sinatuta eta zigilatuta.

IZENA EMATEKO AZKEN EGUNA: 2022ko uztailaren 18a

HAZI Fundazioko Finantza Departamentuak izena ematearen kuotaren zenbateko totalaren faktura bidaliko dizue.

EUSKO JAURLARITZAREKIN PARTE HARTZEA

SIRHA+ LYON

GARRANTZITSUA:

Izen-ematea formalki egintzat jotzeko izena emateko formularioa behar bezala bete eta ordainagiria eta zinpeko adierazpena bidali beharko dira. Ondorio guztietarako, izen-ematea ordaindu den eguna hartuko da izen-emate datatzat.

Eskatutako izena emateko formularioa betetzeak **EZ DAKAR** enpresak ekitaldian parte hartzea. Parte-hartzea **izena emateko epea amaitu ondoren** berretsiko da (**2022ko uztailaren 18a**).

ENPRESAK FAKTURA JASO ETA GERO, HAU DA, STANDEAN SARTU DELAKO JAKINARAZPENA JASO ETA GERO, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN BADIO, ORDAINDUTAKOAREN %100 GALDUKO DU.

Enpresek ordaindutako zenbatekoak itzultzeko kasu hauek baino ez dira kontuan hartzen:

- Enpresa erakusleek eskatutako gunea Azokaren Antolakuntzak Eusko Jaurlaritzari esleitutako gunea baino **handiagoa** bada, EZ hautatutako enpresek eskubidea izango dute izena emateko kuota itzultzeko.
- Eusko Jaurlaritzak halabeharrez edo nahiko partaiderik ez dagoelako parte hartzea bertan behera uzten badu, enpresek eskubidea izango dute ordaindutakoaren %100 jasotzeko.

ESKAINITAKO ZERBITZUAK

SIRHA+ LYON

Espazioaren kontratazioa

Sustapen-espazioa izanez parte hartuko da. Espazio horrek stand indibidual eta bikoitz pertsonalizatuak izango ditu enpresa erakusketari bakoitzarentzat.

Standaren dekorazioa

Standean egongo diren oinarrizko dekorazioa eta altzariak berdinak izango dira Euskadiko erakustokiko erakusle guztientzat, eta elementu hauek izango dituzte:

- Stand indibiduala:
 - 1 mahai eta 4 aulki
 - erakusmahaia
 - enpresa erakusketariaren errotozia
 - konexio elektrikoa
 - biltegi komunitarioa
- Stand bikoitza:
 - 2 mahai eta 8 aulki
 - 2 erakusmahai
 - enpresa erakusketariaren errotozia
 - konexio elektrikoa
 - biltegi komunitarioa

Oharra: Harraskak ez dira sartzen stand indibidualetan. Gune komun batean jarriko dira.

Standetako oinarrizko altzarien, elementu elektrikoaren edo premia elektrikoaren edozein aldaketa, horiek gehitzea edo aldatzea badakar, erakusketari bakoitzak kontratatuko du zuzenean, eta dekoratzaileak zuzenean fakturatuko duen kostu erantsiarekin ordainduko du.

Merkantziaren garraioa

Eusko Jaurlaritzak merkantziaren taldeko bidalketa antolatuko du garraiolaria adierazitako puntu komun batetik standera bertara entregatu arte.

Merkantzia bidaltzearen kostua garraiolaria fakturatuko du eta enpresa erakusketariak ordaindu beharko du osorik. Dagokion garaian, enpresa garraiolaria adjudikazioaren datuak helaraziko dira.

Enpresek bertan egon beharko dute merkantzia hartzeko garaian, adieraziko zaien orduan, eta bertan egon beharko dute, halaber, standen dekorazioa azkentzeko, ekitaldia hasi aurretik, nahikoa aurrerapenarekin.

Hotz-ganberak eta beste etxetresna elektriko batzuk

Hotz-ganberaren eta beste etxetresna elektriko batzuen alokairua erakusketariak ordaindu beharko du. Alabaina, Eusko Jaurlaritzak zerbitzu horren kontratazioa koordinatuko du; zerbitzu hori zuzenean enpresa hornitzaileak fakturatuko dio enpresa erakusketariari.

Azokako katalogo ofizialean sartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapideak egingo ditu azokan parte hartuko duten enpresa erakusketari guztiak azokaren antolakuntzak argitaratzen duen katalogo ofizialean inskribatuta ager daitezen. Katalogo horretan agertzen dira erregistratuta ekitaldiaren erakusketari guztiak (izena emateko formularioan jasotako datuak agertuko dira).

Standaren mantentzea

Eusko Jaurlaritza arduratuko da garbiketa-, elektrizitate- eta ur-zerbitzuez, besteak beste, bai eta, oro har, standaren mantentze egokiaz ere.

Potentzia elektrikoaren muga batzuk eta gehieneko kontsumoak egongo dira stand bakoitzeko, eta horien berri emango zaie erakusketariei laguntza prestatzeko izapideak hasten direnean. Erakusketariaren batek muga horiek gainditzen baditu, kostua enpresa erakusketariak ordaindu beharko du.